

1 / 07

# Irizpena

HERRI-ADMINISTRAZIOEN  
ESPARRUAN LANEK ARRISKUEN  
PREBENTZIORAKO LEGERIA  
URRATZEAGATIK NEURRI  
ZUZENTZAILEAK EZARTZEKO  
PROZEDURARAKO

Dekretu Proiektuari buruzkoa

Bilbon, 2007ko martxoaren 7an



C E S

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte  
Arazoetarako Batzordea

Consejo Económico  
y Social Vasco

© Argitalpena: Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea  
Gran Vía, 35-1. solairua  
48009 Bilbo  
[www.cesvasco.es](http://www.cesvasco.es)

Maketazioa eta fotomekanika: Argia Servicios Gráficos, S. L.

Inprenta: Gestingraf, S. A. L.

Lege Gordailua: BI-1216-07

# Irizpena

## I AURREKARIAK

2007ko urtarrilaren 18an Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailaren idatzia iritsi zen Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordera. Idatzi horren bidez herri-administrazioen esparruan laneko arriskuen prebentziorako legeria urratzeagatik neurri zuzentzaileak ezartzeko prozedurarako Dekretu Proiektuari buruzko txostena eskatu zuen Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailak, Euskal Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren 9/1997 Legearen, ekainaren 27koa, 3.1.d) artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Espainiako Konstituzioko 40.2 artikulua arabera, botere publikoei dagokie, politika sozialaren eta ekonomikoaren gidari diren neurrian, laneko segurtasuna eta higiena zaintzea. Bestalde, 3/1979 Lege Organikoaren, abenduaren 18koa eta Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuari buruzkoa, 2. zenbakiko 12. artikulua arabera, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio lan-esparruko legeria exekutaztea, eta 10.4. artikulua arabera, berak bakarrik du eskumena EAEko eta bertako toki-administrazioen funtzionarioen estatutuaren eta Toki Araubidearen esparruan. Hasiera batean, herri-administrazioek euren langileen segurtasunaren eta osasunaren esparruan egin beharreko prebentzioa arautu zenean, lan-erregimeneko langileen esparrua bakarrik arautu zen, eta ez ziren kontuan hartu eta ez ziren arautu administrazio-langileen edo estatutu-erregimeneko langileen segurtasuna eta osasuna. Haatik, EAEn 7/1993 Legearekin, abenduaren 21ekoa eta OSALAN, Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea, eratzen duena, herri-administrazioetako administrazio-langileen eta estatutu-erregimeneko langileen laneko arriskuak prebenitzeko arauak ezarri ziren. Aipatutako legearen azken xedapenen artetik hirugarrenean Eusko Jaurlaritzari eskatzen zaio euskal herri-administrazioen esparruan izaten diren arau-hauste sozialen eta zehapen sozialen gaineko legerian aurreikusitako zehapen-prozedura egokitzeko xedapenak emateko. Estatuan, bestalde, 31/1995 Legearekin, azaroaren 8koa eta Laneko Arriskuen Prebentziorari buruzkoa (LAPL), berariaz aitortzen da herri-administrazioek laneko arriskuen prebentzioaren gaineko araudia urratzeko arriskua dutela.

LAPLk 89/391/CEE aipatzen du, hain zuzen langileek lanean duten segurtasuna eta osasun-baldintzak hobetzeko neurrien ezarpenari buruzko zuzentaraua. Aipatu zuzentarauak mugatzen du EBko prebentzio-politikaren zuzenbide-esparru orokorra. Horrela, 3. artikuluan xedatzen denez, herri-administrazioen zerbitzura lan egiten duten langile zibilekiko administrazio-harremanen edo estatutu-harremanen gainean aipatu Legea eta horren garapen-arauak ezarriko dira. Zentzu horretan, salbuespena izango dira funtzio publikoaren esparruko honakoak: aduanako zaintza-jarduerak, segurtasuna eta babesa; peritaje forentsea eta babes zibila, baldin eta bakoitzaren berezitasunak direla eta legea ezin ezar badaiteke; baina, edozein kasutan, lege hori oinarrian hartuta osatuko da aipatutako jardueretako langileen segurtasuna eta osasuna babesteko berariazko araudia. Era berean, Legea zentro eta establezimendu militarren eta espetxeen berezko ezaugarrietara egokitzeko neurriak aurreikusitako dira.

Hala eta guztiz ere, administrazio-autozehapena arbuizaten duen identitate subjektiboaren printzipioaren ondorioz, indarrean dagoen araudiaren aurkako jarrerak zuzendu nahi badira nahitaezkoa izango da neurri zuzentzaileak ezartzea, zeha-pen-neurriak aplikatuz ez baita nahi dena lortuko.

Adierazitako guztia kontuan hartuta, herri-administrazioen esparruan laneko arriskuen prebentziorako legeria urratzeagatik neurri zuzentzaileak ezartzeko prozedurarako Dekretu Proiektuari buruzko txostenaren kopia bidali zitzaizkien berehalakoan Kontseiluaren Osoko Bilkurako kide guztiei, eta txostena aztertu ondoren proposamenak egiteko eta euren iritzia agertzeko eta horiek dagokion Lan Batzordeari jakinarazteko denbora eman zitzaizkien, betiere Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Funtzionamendu Araudian ezarritakoaren arabera.

2007ko otsailaren 9an Gizarte Garapenerako Batzordeak lan-bilkura egin zuen Irizpen Aurreproiekturako hasierako proposamena osatzeko. Otsailaren 23an, gainera, ondorengo orrialdeetan adierazitako Irizpen Proiektua onartzea erabaki zen eta 2007ko martxoaren 7ko Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean aurkeztu da. Data horretan onetsi da EGABn LABen ordezkariaren boto partikularrekin.

## II EDUKIA

Hiru zati bereizi dira herri-administrazioen esparruan laneko arriskuen prebentziorako legeria urratzeagatik neurri zuzentzaileak ezartzeko prozedurarako Dekretu Proiektuari buruz diharduen testuan. Lehenengo zatian zioen azalpen laburra egin da, bigarrenean xedapenak adierazi dira eta hirugarrenean (eranskina) prozedura bera barne hartu da.

## Atarikoa

---

31/1995 Legea, azaroaren 8koa eta Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzkoa (LAPL), bat dator 1978ko Konstituzioan eta 89/391/CEE Zuzentarauan ezarrita-koarekin eta, ildo horretan, LAPLren 3. artikulua xedatzen du LAPL eta hori gartzeko arauak ezarriko direla herri-administrazioen zerbitzura lan egiten duten langile zibilekiko administrazio-harremanen edo estatutu-harremanen gainean, eta, horrela, ordura arteko egoera zuzenduko da, izan ere, herri-administrazioek bere langileen segurtasunaren eta osasunaren esparruan ordura hartu zuten konpromisoa lan-erregimeneko langileei zegozkien arauen ezarpenera mugatzen zen eta administrazio-langileek edo estatutu-langileek laneko segurtasuna eta osasuna bermatzeko zuten eskubidea baztertuta geratzen zen inolako arrazoirik gabe.

Haatik, EAEn 7/1993 Legean, abenduaren 21ekoa eta OSALAN, Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea, eratzen duena, jada herri-administrazioetako administrazio-langileen eta estatutu-langileen laneko arriskuak prebenitzeko arauak barne hartu ziren. Aipatutako legearen azken xedapenen artetik hirugarrenean Eusko Jaurlaritzari eskatzen zaio euskal herri-administrazioen esparruan izaten diren arau-hauste sozialen eta zehapen sozialen gaineko legerian aurreikusitako zehapen-prozedura egokitzeko xedapenak emateko.

Bigarrenik, LAPLtik abiatuta berariaz aitortu da herri-administrazioek laneko arriskuak prebenitzeko araudia urratzen duten jokaerak dituztela batzuetan; eta administrazio-autozehapena arbuizaten duen identitate subjektiboaren printzipioaren ondorioz, indarrean dagoen araudiaren aurkako jarrerak zuzendu nahi badira nahitaezkoa izango da neurri zuzentzaileak ezartzea, zehapen-neurriak aplikatuz ez baita nahi dena lortuko.

Atarikoarekin amaitzeko, Dekretu Proiektua aurkezteko arrazoia 7/1993 Legearen, abenduaren 21ekoa eta OSALAN, Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea, eratzen duena, azken xedapenen artetik hirugarrenean emandako agindua betetzea dela adierazi da; eta 3/1979 Lege Organikoaren, abenduaren 18koa eta Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuari buruzkoa, 2. zenbakiko 12. artikulua araberan, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio lan-esparruko legeria exekutatzeko, eta 10.4. artikulua araberan, berak bakarrik du eskumena EAEko eta bertako toki-administrazioetako funtzionarioen estatutuaren eta Toki Araubidearen esparruan.

## Dekretuaren xedapen-multzoa

---

**Artikulu bakarraren** bidez onartu da xede dugun prozedurari buruzko araudia.

**Lehenengo xedapen gehigarriaren** arabera, xede dugun prozedurak EAEko Administrazio Orokorreko aginte-organoak aipatzen baditu ere, gainerako euskal

herri-administrazioetako langile zibilei dagokienez, aipatu administrazioetako aginte-organoeak xedatutakoa jarraituko da.

**Lehenengo xedapen indargabetzaileak** indargabetu egiten ditu araudi honen aurka dauden maila bereko edo baxuagoko araudi-xedapenak.

**Azken xedapenen artetik lehenengoak** ahalmena ematen dio Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuari Dekretu hau garatzeko; **bigarreanean** araudia indarrean sartuko den eguna zehaztu da.

## Eranskinaren xedapen-multzoa

---

### I. kapitulua. Xedapen orokorrak

**1. artikuluan** Dekretuaren xedea aipatu da, hain zuzen, herri-administrazioen esparruan laneko arriskuen prebentziorako legeria urratzeagatik neurri zuzentzaileak ezartzeko prozedura arautzea.

**2. artikuluan** arabera, euskal herri-administrazioetako organo zentraletan eta lurralde-organoeetan, horien erakunde autonomoetan eta mendeko bestelako erakundetan aplikatuko da araudia, baldin eta funtzionario-izaerako edo estatutu-izaerako lan-harremanak badaude. Ondoren araudi hau aplikatuzetik salbuetsita dauden esparruak aipatu dira: sozietate publikoak, herri-administrazioen mendeko polizia-zentroak eta –establezimenduak, etab.

### II. kapitulua. Aurretiko ikuskapen-jarduera

LEHENENGO SEKZIOA: Ikuskapen-jarduera hastea

**3. artikuluan** prozedura abiarazteko modua aipatzen da. Ofizioz eskatuko du, beti, Laneko Segurtasun eta Osasunerako Ikuskapena egiteko eskumena duen organoak, goragokoaren agindu baten bidez edo bere kasa, egindako eskaerei edo salaketei erantzuteko.

**4. artikuluan** arautu da ikuskapen-jarduera hasteko eskumena duen organoa, hain zuzen ere Ikuskaritza Unitateko arduraduna.

**5. artikuluan** ikuskapen-jarduera hasteko eskaera aurkeztearekin batera bete beharreko baldintzak ezarri dira, eskaera langileen ordezkariak egindakoa denean.

**6. artikuluan** definitu da ikuskapen-jarduera hasteko prozedura, ikuskapen-eskaera pertsona interesdunaren salaketa baten bidez egiten denean.

BIGARREN SEKZIOA: Ikuskapen-jardueraren garapena

**7. artikuluan** laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudia betetzen ote den baieztatzeke administrazio-zentroetan egiten diren bisitaldien azalpenak eman dira.

**8. artikuluan** arabera, Laneko Segurtasun eta Osasun Ikuskaritzak OSALAN Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearekin batera jardungo du eta eskumeneko Laneko Segurtasun eta Osasunerako Batzordean txostena eskatu ahal izango du.

### III. kapitulua. Neurri zuzentzaileak ezartzeko prozedura

**9. artikulua** arabera, laneko arriskuak prebenitzeko araudia ezartzeko orduan arau-haustek edo irregulartasunak gertatzen direla egiaztatu eta gero, ikuskatzai-leak errekerimendu-proposamen bat aurkeztuko du. Proposamen horretan zehaztuko dira irregulartasunak antzeman diren administrazioa edo administrazio-unitatea, irregulartasunak, horiek zuzentzeko hartu beharreko neurriak, eta epea.

**10. artikulua** errekerimendu-proposamena bidaliko edo jakinaraziko diren erakundeak aipatzen ditu.

**11. artikulua** arautzen du errekerimendu-proposamena behin betiko proposamen bihurtzeko mekanismoa (alegazioak aurkezteko epea; ikuskatzailearen ahalmena, desadostasunen aurrean eta alegazio eta txosten teknikoen aurrean behin betiko errekerimendua egiteko; komunikazioa...).

**12. artikulua** zehaztu da behin betiko errekerimendua urratuz gero jarraituko den prozedura.

### IV. kapitulua. Berariazko arauak

**13. eta 14. artikuluetan** arautu da jarduerak geldiarazteko prozedura. 13. artikuluan jardueren etetea Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Ikuskaritzak agindutakoa denean aplikatu beharreko prozedura adierazi da eta 14.ean langileen ordezkariak agindutakoa denean aplikatu beharrekoa.

## III ERANSKINAREN OHARRAK

### III.1 Ohar orokorrak

- 31/1995 Legean, azaroaren 8koa eta Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzkoa (LAPL), aipatzen denaren arabera, "enpresen prebentzio-ekintza garatzeko funtsezkoa da IV. kapituluan araututako baldintza betetzea, hain zuzen prebentzio-ekintza garatzeko enpresak langile bat edo hainbat izendatuko ditu berariaz". Ildo horretan,
- 30. artikulua 1. atalaren arabera, "laneko arriskuak prebenitzeko neurriak hartzen ez badira, enpresariak langile bat edo batzuk izendatuko ditu aipatutako jardueraz arduratzeko"; eta 5. artikulua dioenez, "sei langiletik beherako enpresetan enpresariak bere gain har ditzake 1. atalean adierazitako funtzioak, betiere lantokian lan egiten badu normalean eta langileek dituzten arriskuei eta jardueren arriskutasunari erantzuteko beharrezkoa den gaitasuna badu".
  - 34. artikulua 1. atalaren arabera, bestalde, "langileek laneko prebentzioarekin erlazionatutako alderdi guztietan parte hartzeko eskubidea dute enpresan", eta "sei langile edo gehiago dituzten enpresetan edo lantokietan langileen ordezka-

rien eta ordezkaritza espezializatuaren bidez parte hartuko da (alderdi hori kapitulu berean arautu da).

- 35. artikulua Prebentzio Ordezkariaren irudia arautzen du eta ordezkaritza-ahalmen zabala ematen zaio<sup>1</sup>.

Adierazitako guztia kontuan hartuta esan daiteke Dekretu Proiektuak “ahaztu” egiten dituela laneko arriskuen prebentzioaren esparruan berariazko funtzioak betetzen dituzten langileen ordezkarietako dagokien ahalmena eta parte hartzeko eskubidea. Harrigarria da horrelako zerbait “ahaztea”, kontuan hartuta prebentzio-ordezkariaren irudia administrazioaren beste esparru batzuetako Praktika Onetan barne hartuta dagoela<sup>2</sup>.

Amaitzeko, LAPLk berariaz aitortzen ditu prebentzio-ordezkariaren irudia, eta berariazko funtzioak eta parte-hartzea esleitzen zaizkio; era berean, prebentzioaren esparruan berariazko eskubideak ditu eta prebentzio-organo paritario bat den neurrian, informazio guztia eman behar zaio eta ezin da bazter batean utzi.

Beste alde batetik, Batzorde honen ustez, proposatutako neurrien eraginkortasuna ziurtatzeko lehenik eta behin araua onartu beharko da eta, era berean, beharrezkoak diren bitarteko materialak, giza bitartekoak eta aurrekontuko bitartekoak hornituko dira.

Aipatutako arazo guztiez gain, ezin da ahaztu antolatu nahi den Ikuskaritzaren eta Lan eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzaren artean eguneroko jardueran sortuko den gatazka-giroa, izan ere, azken hori Estatuko Administrazioaren mende dago. Eta adierazitako guztia kontuan hartuta, Lan eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzaren transferentzia lortzeko mekanismoak sustatzea komeni dela ondoriozta dezakegu.

Amaitzeko, legegileak dekretu-proiektu honetan Estatuko araudiko artikulua ugari hitzez hitz kopiatu egin dituela kritikatu nahi dugu.

<sup>1</sup> Artikulu honetan prebentzio-ordezkariaren definizioa egin da: “laneko arriskuen prebentzioaren esparruan berariazko funtzioak dituzten langileen ordezkariak dira”; era berean, langileen ordezkarietako ordezkariaren artetik aukeratutako dituzte prebentzio-ordezkariak, 34. artikuluan aipatutako arauetan aurreikusitako ordezkari-organoen esparruan. Eskala jakin bati jarraituko zaio: 50-100 langile dituzten enpresetan 2 ordezkari aukeratuko dira eta 8 izango dira 4.000 langiletik gorako enpresetan. Halaber, hogeita hamar langile bitarteko enpresetan langileen ordezkaria izango da prebentzio-ordezkaria. 31-40 langileko enpresetan prebentzio-ordezkari bat egongo da eta langileen ordezkarietako aukeratutako dute langileen ordezkariaren artetik.”

<sup>2</sup> Besteak beste, prebentziorako plan estrategikoaren zirriborroa eta Praktika Onei buruzko “47/2006 lanerako irizpidea, enpresako langile, horien ordezkari, peritu eta teknikarietako ikuskapen-bisitetan dagokien parte-hartzeari buruzkoa” aipa daitezke, eta, zehazkiago, “enpresako langileei eta horien ordezkarietako ikuskapen-bisitetan dagokien parte-hartzeari buruzkoa”, Lan Ikuskaritza eta Gizarte Segurantzako Idazkaritzaorde Orokorrena.



### III.2 Berariazko oharrak

---

#### II. kapitulua.- Aurretiko ikuskapen-jarduera

##### 3. ARTIKULUA. Prozedura hasteko modua

Batzorde honek beharrezkoa deritzo prebentzio-ordez kariaren irudia berariaz barne hartzeari, eta ondorengo proposamena egin du:

*“Laneko Segurtasun eta Osasun Ikuskaritzako eskumeneko organoak ofizioz abiara-ziko du beti herri-administrazioen esparruan laneko arriskuen prebentziorako legeria urratzeagatik neurri zuzentzaileak ezartzeko prozedura, goragokoaren agindu baten bidez edo bere kasa, **prebentzio-ordez kariak edo, horrelako iruditik ez badago, langileen ordez kariak eskatzen badu** edo interesa duen pertsonaren salaketa baten bidez eskatzen bada”.*

##### 5. ARTIKULUA. Langileen ordez kariak eskatzen duenean prozedura hastea.

Prebentzio-ordez kariaren irudia gehitu beharko litzateke.

##### 5. artikulua. **prebentzio-ordez kariak edo, horrelako iruditik ez badago, langileen ordez kariak eskatzen duenean.**

*“Edozein euskal herri-administrazio-tako **prebentzio-ordez kariak edo, horrelako iruditik ez badago, langileen ordez kariak esku hartzeko eskaera aurkezten badio Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeari, prebentzio-ordez kariak egindako jardueren zerrenda aurkeztu beharko da kasuan kasuko administrazio-zent-roko organo arduradunaren aurrean eta, hala badagokio, dagokion Laneko Segur-tasun eta Osasun Batzordearen txostena aurkeztu beharko da halaber”.***

##### 6. ARTIKULUA. Pertsona interesdunak aurkeztutako salaketa bat dagoenean prozedura hastea.

Berrito azpimarratu nahi dugu prebentzio-ordez kariaren irudia gehitu beharko litzatekeela.

*“Ikuskapen-jarduera pertsona interesdunak aurkezten badu, Ikuskapen Unitateko arduraduna, prozedura abiarazi aurretik, prebentzio-ordez kariarengana edo, horrelako irudirik ez badago, salaketa aurkeztu duten zentroko edo instalazioko langileen ordez kariarengana joko du eta garatutako jardueri buruzko idatzizko txostena dagokion administrazio-zentroko organo arduradunari bidaltzeko eskatuko dio eta, hala badagokio, jardueren edukia zehazteko eskatuko dio. Ikuskapen-unitateko arduradunak, aipatu txostena aztertu eta gero, esku hartzeko erabakia har dezake. Edozein modutan, hartutako erabakia salaketa egileari jakinaraziko zaio, behar den bezala arrazoitua”.*

##### 7. ARTIKULUA. Bisitak

*“47/2006 lanerako irizpidea, enpresako langile, horien ordez kari, peritu eta teknikariei ikuskapen-bisitetan dagokien parte-hartzeari buruzkoa” agirian adierazita-*

koa kontuan hartuta, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen ustez aldatu egin beharko litzateke idazketa eta *nahitaezko* izaera eman beharko litzaioke, baldin eta ondorioz jardueraren arrakasta oztopatzen ez bada. Ondorengo da gure proposamena:

*“Bisita egiten denean... ikuskatzaileak Laneko Arriskuak Prebenitzeko Legearen 40.2 artikuluan xedatutakoaren arabera jardungo du eta Osasun eta Segurtasun Batzordearekin edo prebentzio-arduradunarekin eta, horrelako irudirik ez badago, langileen lege-ordezkariekin batera jardungo du, **baldin eta bete beharreko lanaren arrakasta oztopatzen ez bada.**”*

### III. kapitulua. Neurri zuzentzaileak ezartzeko prozedura

#### 9. ARTIKULUA. Errekerimendu-proposamena

d) atalean neurri zuzentzaileak ezartzeko epeak aipatu dira, baina Batzorde honen ustez gehiago zehaztu beharko litzateke, hau da, kasuan kasuko gehienezko eta gutxienezko epeak zehaztea komeni dela uste dugu.

#### 10. ARTIKULUA. Errekerimendu-proposamenaren jakinarazpena.

Prebentzio-ordezkariaren irudia gehitu beharko litzateke halaber.

*“Ikuskatzaile jarduleak aurreko artikuluan aipatutako errekerimendu-proposamenaren berri emango dio ikuskatu den administrazio-unitateari, ikuskapena agindu duen organoari eta **prebentzio-arduradunari edo, horrelako irudirik ez badago, langileen ordezkariari.**”*

Batzorde honen ustez, “eta salaketa aurkeztu duen pertsonari” gehitu beharko litzateke. Horrenbestez, ondorengo idazketa proposatu du Batzordeak:

*“Ikuskatzaile jarduleak aurreko artikuluan aipatutako errekerimendu-proposamenaren berri emango dio ikuskatu den administrazio-unitateari, ikuskapena agindu duen organoari eta **prebentzio-arduradunari edo, horrelako irudirik ez badago, langileen ordezkariari, eta salaketa aurkeztu duen pertsonari.**”*

#### 11. ARTIKULUA. Alegazioen izapideak eta behin betiko errekerimendua.

1., 2. eta 3. ataletan prebentzio-ordezkariaren irudia gehitu beharko litzateke. Hor-taz, honakoa Batzordearen proposamena:

*“1. Administrazio-unitateak zein **prebentzio-arduradunak edo, horrelako irudirik ez badago, langileen ordezkariak** hamabost asteguneko epea edukiko dute alegazioak aurkezteko...”. errekerimendu-proposamena.”*

*“2. Ikuskatzen den administrazio-unitateak zein **prebentzio-arduradunak (edo, horrelako irudirik ez badago, langileen ordezkariak)** aurreko atalean aipa-*

*tutako epean alegaziorik aurkezten ez badute, prebentzio-esparruan antzemanda-ko irregulartasunekin bat datozelako, edo..."*

*"3. Errekerimendu-proposamenarekin desadostasunik badago, ikuskapena egin den administrazio-unitatearen burutzak zein **prebentzio-arduradunak (edo, horrelako irudirik ez badago, langileen ordezkariak)** alegazioak egingo dituzte aurreko atalean aipatutako hamabost asteguneko epean,... horiek exekutatzeke epea.*

#### IV. kapitulua. Berariazko arauak

14. ARTIKULUA. Langileen ordezkariak adostutako etetea.

Prebentzio-ordezkariaren irudia aurreikusi ez dela azpimarratu nahi dugu berriro ere.

Hala ere, ezin dugu ahaztu Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 21.3 artikulua dioena,

*"Artikulu honen 1. atalaren arabera, enpresariak langileen segurtasuna eta osasuna bermatzeko behar diren neurriak hartzen ez dituenean edo neurriak hartzea eragozten duenean, langileen lege-ordezkariak, langileen gehiengoaren adostasunarekin, arriskuak eragindako langileen lan-etetea erabaki dezakete; erabaki hori enpresari eta lan-agintaritzari jakinaraziko zaio berehala eta lan-agintaritzak aipatu lan-etetea baliogabetu edo berretsi egingo du hogeita lau orduko epean.*

*Aurreko paragrafoan aipatutako erabakia prebentzio-ordezkari gehienek adostasunarekin hartuko da, baldin eta langileen ordezkari-arganoa biltzeko denborarik ez badago."*

akordioa edo erabakia prebentzio-ordezkari gehienek adostasunarekin hartuko da, baldin eta **langileen ordezkari-arganoa biltzeko denborarik ez badago.**

Ondorioz, honakoa idazketa:

*"14. artikulua. Langileen ordezkariak adostutako etetea"*

*"Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 21.3 artikulua emandako ahalmena gauzatuz, jardueraren etetea **langileen ordezkariak prebentzio-ordezkari gehienek adostasunarekin** erabakitzen badu (langileen ordezkari-arganoa biltzeko denborarik ez dagoelako), jarduera-etetearen berri emango zaio berehalakoan dagoen administrazio-unitateko Zuzendaritzari eta Lurralde Ordezkariari..."*

#### IV ONDORIOAK

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak egoki deritzo herri-administrazioen esparruan laneko arriskuen prebentziorako legeria urratzeagatik neurri zuzentzaileak ezartzeko prozedurarako Dekretu Proiektua izapidetzeari, betiere kontsulta-organoak egindako oharrak barne hartuta.

Bilbon, 2007ko martxoaren 7an

OE Lehendakaria  
Antxon Lafont

Idazkari Nagusia  
Javier Muñecas

#### LAB SINDIKATUAREN ORDEZKARIAREN BOTO PARTIKULARRA

Estatuaren eta EA Eren eskuduntza esparruen artean konkurrentzia arazotsua sor litekeela eta, EGABren irizpenean transferentzien prozesuaren blokeoaren aurrean ez batera eta ez besterako jarrera hartzen da eta, ondorio modura, "Lan Ikuskaritza eta Gizarte Segurantzaren transferitzea lortzeko behar diren mekanismoak bultzatu behar direla" gomendatzen du.

LABen iritziz, idazketa hori ez da nahikoa, Madrileko gobernuari Lan Ikuskaritza eta Gizarte Segurantzaren ez eze, lan alorrean transferitu barik dituen gainerako eskuduntzak ere berehala transferitzeko eskatu behar baitaio.

Era berean, oraingo marko juridiko-politikoak lan alorreko eskuduntza gabeziaren eta legegintzarako ahalmenik ezaren aldetik dituen mugak gainditzera bideratutako ekimenak abiaraz daitezzen eskatzen dugu.

**Rafa Izquierdo**  
LABen ordezkaria EGABn